

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Bake epaile titularren eta ordezkoren karguak betetzeko deialdia

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 102. artikuluek xedatutakoa betetzeko, jakinarazten da udalbatzak bake epaile titularren eta ordezkoren karguak lau urteko aldi batez beteko dituzten pertsonak izendatzeko proposamena egingo diola Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Gobernu Batzordeari.

Botere Judizialaren Lege Organikoak ezarritakoaren arabera, prozeduran parte hartzeko baldintza hauek bete beharko dira:

- Adinduna izatea.
- Nazionalitate espainiarra izatea.
- Desgaitasun edo bateraezintasunen bat ez izatea (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. eta 389. artikulua eta 3/1995 Arautegiaren 23. artikulua).

– Interesdunek Lapuebla de Labarca Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute eskaera; horretarako, hamabost egun baliadun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

1. NANaren fotokopia edo haren baliokidea.
2. Zigor aurrekarien ziurtagiria.
3. Zinpeko adierazpena, honako hauen gainean:
 - a) Ez dela egon doluzko delituagatik zigortuta egon edo, hala badagokio, birgaitze onura jaso duela.
 - b) Ez dagoela prozesaturik edo erruztaturik dolozko delituagatik, edo, hala badagokio, auzi-petua izan den kausan absoluzioa edo artxibatze autoa eman zaiola.
 - c) Eskubide zibil guztien jabe dela.
 - d) Ez dagoela fisikoki edo psikikoki ezindurik epaile eginkizunetarako.
 - e) Ez du Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. artikuluan eta 389. artikulutik 397.era bitartekoetan eta 3/1995 Erregelamenduaren 23. artikuluan aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasunik.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Lapuebla de Labarca, 2023ko uztailaren 31

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ